

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**Zuzenbideko Gradua**


**2020-2021**

**ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN EUSKARAZKO TESTUAREN  
GAURKOTZEA: HIZKERA ARGIA HELBURU**

**Egilea: Paula Aurrekoetxea Ondartza**

**Zuzendaria: Xabier Alberdi Larizgoitia**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ZUZENBIDE  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE DERECHO



## **LABURPENA:**

Gradu Amaierako Lan honetan hizkuntza eta komunikazioaren arloko interesgune bati heltzen zaio: Espainiako Konstituzioaren euskarazko testua eguneratzeko eta argiagotzeko urrats eta proposamenak aztertzea, hizkera juridiko argiaren aldeko mugimenduen argitan.

Zehatzago, lexikoa, terminologia eta fraseologia aztertu ditut Espainiako Konstituzioaren hiru bertsiotan: 1978ko testua, 2004ko testua eta 2006ko testua.

Azterketa horrekin batera, euskararen eta diskurtso juridikoaren bilakaerari eta garapenari buruzko ondorioak formulatu ditut ondorioen atalean.

*Gako hitzak: Espainiako Konstituzioa, hizkera juridiko argia, lexikoa, terminologia, fraseologia.*

## **RESUMEN:**

En este Trabajo de Fin de Grado se aborda un punto de interés en el ámbito de la lengua y la comunicación: analizar los pasos y propuestas para actualizar y clarificar el texto en euskera de la Constitución Española, a la luz de los movimientos a favor del lenguaje jurídico claro.

Más concretamente, he analizado el léxico, la terminología y la fraseología en tres versiones de la Constitución española: texto de 1978, texto de 2004 y texto de 2006.

Junto a este análisis, en el apartado de conclusiones he formulado conclusiones sobre la evolución y desarrollo del euskera y del discurso jurídico.

*Palabras clave: Constitución Española, lenguaje jurídico claro, léxico, terminología, fraseología.*

## **ABSTRACT:**

This Final Degree Project addresses a point of interest in the field of language and communication: to analyze the steps and proposals for updating and clarifying the Basque text of the Spanish Constitution, in the light of the movements in favor of clear legal language.

More specifically, I have analyzed the lexicon, terminology and phraseology in three versions of the Spanish Constitution: 1978 text, 2004 text and 2006 text.

Together with this analysis, in the conclusions section I have formulated conclusions on the evolution and development of the Basque language and legal discourse.

*Key words: Spanish Constitution, clear legal language, lexicon, terminology, phraseology.*

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>7</b>
<b>2. Kontzeptu garrantzitsuak</b>	<b>8</b>
2.1. Hizkuntza juridikoaren gaurkotzea	8
2.2. Hizkera argia arlo juridikoan	9
2.2.1 Ulertzeko eskubidea eta haren legezko bermea Espainiako estatuan	9
2.2.2. Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutuna	10
2.2.3. Hizkera argiaren aldeko mugimenduak	11
2.2.3.1 Plain Language mugimendua	11
2.2.3.2. Clarity mugimendua	11
2.2.3.3. Irakurketa erraza	11
2.2.3.4. Lenguaje ciudadano	12
2.2.3.5. Legal Design	12
2.3. Euskara juridikoa	13
2.3.1. Nola ekin zitzaion euskal testu juridikoak ekoizteari (1979an)	14
2.3.2. Euskara juridikoari dagokionez izan dugun eboluzioa (1979tik aurrera)	14
2.3.3. IVAPen langintza: hizkera (juridiko-administratibo) argiaren aldeko mugimenduen ildoan	15
2.3.3.1. IVAPen Hizkera argiaren bidetik liburua	15
2.3.3.2. IVAPeko estilo liburua (1996)	15
2.3.3.3. Argiro liburua	15
2.3.3.4. Zalantza-dantza liburua	16
2.3.3.5. Duda-muda eta Galdezka liburua	16
2.3.3.6. IVAPen 2005eko estilo liburua	16
2.3.3.7. IVAPen Administrazioa Euskaraz aldizkaria	16
2.3.3.8. 20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos	17
<b>3. Metodologia</b>	<b>18</b>
3.1. Aztertuko ditudan hizkuntza-arloak	18
3.1.1. Lexikoa	18
3.1.2. Terminologia	19
3.1.3. Fraseologia	19
<b>4. Espainiako Konstituzioaren hiru bertsiok: testuingurua eta ezaugarriak</b>	<b>21</b>
4.1. 1978ko testua/ itzulpena	21
4.2. 2004ko testua/ itzulpena	22
4.3 2006ko testua/ itzulpena	23
<b>5. Hiru bertsioren azterketa eta hobekuntza-proposamenak</b>	<b>24</b>
<b>6. Ondorioak</b>	<b>39</b>

6.1. 1978ko bertsioaren azterketaren ondorioak	43
6.2. 2004ko bertsioaren azterketaren ondorioak	44
6.3. 2006ko bertsioaren azterketaren ondorioak	45
6.4. Azken ondorioak	46
<b>7. Bibliografia</b>	<b>49</b>

## 1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honek Espainiako Konstituzioaren euskarazko testua eguneratzeko eta argiagotzeko urrats eta proposamenak aztertzea du helburu, hizkera juridiko argiaren aldeko mugimenduen argitan.

Horretarako, lehenik eta behin, kontzeptu garrantzitsu batzuk azaltzea beharrezko ikusi dut; hala nola hizkuntza juridikoaren gaurkotzea, hizkera argia arlo juridikoan eta hizkera argiaren aldeko mugimenduak zeintzuk izan diren eta zer den euskara juridikoa eta honek izan duen ibilbidea eta garapena urteetan zehar, gaur egun arte.

Behin kontzeptu hauek argi izanda, metodologian sartzen gara bete-betean. Lexikoa, terminologia eta fraseologia aztertu ditut Konstituzioaren hiru bertsiotan: 1978ko testuan, 2004ko testuan eta 2006ko testuan; baina alderdi horiek bertsioetan aztertzeko, kontzeptuok definitzea komeni da, argi izan dezagun zer aztertuko dugun maila bakoitzean. Garrantzitsua ikusi dut, orobat, azterketa egin baino lehen aipatutako eta gero aztergai izango ditudan Konstituzioaren bertsioak bere testuinguruan jartzea, itzulpenak, moldaketak, akatsak eta abar hobeto ulertzeko.

Alderdiok definituta eta bertsioak kokatuta, azkerketarekin hasi naiz, horretarako, konparaketa errazago egiteko eta argiago ikusteko helburuarekin, taulak erabiliz; beraz, bertsio bakoitzeko atal batzuk hartu ditut eta **lexikoa (gorriz)**, **terminologia (berdez)** eta **fraseologia (morez)** azpimarratu. Taula bakoitzaren azpian, azterketa zehatza ematen da, hitz, termino eta esaldi bakoitza zehatz-mehatz miatuz.

Azterketaren ondoren, ondorioak jaso ditut lana amaitzeko: lau azpiataletan banatu ditut (1978ko bertsioaren azterketaren ondorioak, 2005ko bertsioaren azterketaren ondorioak, 2006ko bertsioaren azterketaren ondorioak eta azken ondorioak), aurretik aztertutakoa ondo landuz eta bertsioen testuinguruarekin erlazionatuz.

## **2. Kontzeptu garrantzitsuak**

Hemen hiru kontzeptu nagusi azalduko ditut, beharrezkoak izango direnak, geroago azalduko ditudan eta lanaren funtsa diren Espainiako Konstituzioko hiru bertsioren zuzenketak egiteko: hizkuntza juridikoaren gaurkotzea, hizkera argia arlo juridikoan eta euskara juridikoa.

### **2.1. Hizkuntza juridikoaren gaurkotzea**

Herritarrek arauak eta egintza juridikoak ulertzeko duten eskubidea Espainian juridikoki jasota ez dagoen fenomeno da, oso logikoa iruditzen zaigun arren. Egia da, zuzenbide-estatu bat dela (Espainiako Konstituzioaren 1.1 art.) eta, beraz, arau-testuak eta ebazpen instituzionalak herritar guztiei ulergarri egiteko betebeharra du, eta hori horrela ez bada, oinarritzko eskubideak urra ditzake; gainera, herritarren % 82k aitortzen du zailtasunak dituela irakurtzen ari dena ulertzeko, erabilitako hizkeraren ondorioz.

Izan ere, legegintza-teknikak garrantzia hartzen du zuzenbide argi, ulergarri eta zehatz bat sortzeko orduan, KAren 150/1990 Epaiazen zortzigarren oinarri juridikoa argudiatuz, non honako hau adierazten baita: "Legeria nahasi, ilun eta osatu gabe batek haren aplikazioa zailtzen du, eta, zuzenbidearen ziurtasuna eta herritarrek harengan duten konfiantza ahultzeaz gain, justiziaren balioa ahuldu dezake".

Hizkera juridikoaren gaurkotzea eta legegintza-teknika (legeak idazteko modua) funtsezkoak dira arauen aplikazioaren ulergarritasunerako. Gaurkotzea, neurri batean, legegintza-teknikaren gidalerroak aplikatuz egiten da, eta hori ezinbesteko tresna bihurtzen da lehenengoaren helburuak lortzeko.

Bestalde, Espainiako Konstituzioa bezalako arauetan erabiltzen den hizkuntza zaharkituta dago eta legeak ulertzeko lana nahikoa prestakuntza dutenentzat bakarrik da egokia. Halaber, legeen "kalitate okerrak" ulertezin bihurtzen ditu batzuetan, eta horrek legeen segurtasun juridikoari eragin diezaioke.

Era berean, segurtasun juridikoaren printzipio horrek berekin dakar organo legegilearen betebeharra arauak argi eta garbi idazteko, hartara, arau horren mende dauden pertsonak oker dauden egoerak saihesteko, edo arauaren hartzaileari behar ez den nahasmendua



eragiten dioten egoerak saihesteko. Konstituzio Auzitegia bera da arauen argitasunaren ideia hori aipatzen duena, arauak idazten diren unetik bertatik, segurtasun juridikoaren zati gisa, emandako hainbat eparen bidez.

## **2.2. Hizkera argia arlo juridikoan**

Testu juridikoen argitasuna herritarren eskubidea da, batez ere herritarren bizimoduan eragina duten testuetan, Ainhoa Alzagurennek bere GRALean (Hizkera juridiko argiaren bidetik Ulertzeko Eskubidea jomugan) definitzen duen bezala.

Askotan, justizia arloko testuak korapilatsuak eta ulertezinak izaten dira eta horrek gaizki ulertuak dakartza eta, beraz, laguntza edo aholkularitza zerbitzuetara jo beharra.

Beharrezkoa da hizkera argia; herritarrak behar duen informazioa modu errazean aurki dadin, zailtasunik gabe ulertu ditzan eta erabakiak jakinaren gainean hartzeko aukera izan dezan.

Hizkera argiaren bidetik daukagu Ulertzeko Eskubidea, zeina baita herritarrei arauak eta zuzenbideko profesionalen ahozko zein idatzizko komunikazioak beren kabuz ulertzeko aitortzen zaien eskubidea.

Aipatutako eskubidea loteslea da estatu zein nazioarteko erakunde guztientzat; estatua eta nazioarteko erakundeak dira arauak xedatzen dituztenak eta haiei dagokie herritarrek zailtasunik gabe ulertzea bermatzea.

Beste alde batetik, baditugu hizkera argia aldarrikatzen duten Nazioarteko mugimenduak; hala nola Plain Language, Clarity, Irakurketa Erraza, Lenguaje Ciudadano eta Legal Design.

### 2.2.1 Ulertzeko eskubidea eta haren legezko bermea Espainiako estatuan

Lehen aurreratu bezala, Ulertzeko eskubidea, guztiok dugun eskubide bat da eta zenbait estatutako oinarrizko legedietan berariaz dago jasota, baina Espainiaren kasuan, aldiz, Ulertzeko Eskubidea ez dago oinarrizko legedian integratua; ezta Espainiako Konstituzioan, ezta oinarrizko lege nagusietan. Beraz, esan genezake Espainian

Ulertzeko Eskubidearen bermea ez dela erabatekoa, nahiz eta hainbat lege-testu eta dokumentutan bide egiten zaion.

Hasteko, Konstituzioko 1.1 artikuluan Zuzenbide Estatuak aldarrikatzen denean, bere barnean sartzen da arau eta ekintza juridikoak ulergarriak izateko eskakizuna.

Espainiako Konstituzioko 24.1 artikuluan aurreikusitako babes judizial eraginkorrari ere jarri behar diogu arreta. Artikulu honetan esaten da herritar guztiek dugula prozesu judizial batera jotzeko eskubidea eta Auzitegi Konstituzionalak dio prozesu horretan ematen diren ebazpenek nahitaez arrazoituak izan behar dutela. (Espainiako Konstituzioko 120.3 artikulua).

Honen harira, ebazpenak arrazoituak izateko galdatutako baldintzen artean, hizkera juridiko ulergarria erabiltzea aurreikusten du Hizkera Juridikoaren Modernizaziorako Batzordeak. Ondorioz, hizkera judizialaren argitasun eta ulergarritasuna babes judizial eraginkorraren oinarrian egongo litzateke, funtsezko baldintza baita Zuzenbidea bera ulertzeko eta aplikatzeko ere.

Hala ere, Espainiako legerian 2002ko apirilaren 16ko “Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutuneari” aipatzen da lehen aldiz “Ulertzeko Eskubidea”, ondoren aztertuko dudana.

### 2.2.2. Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutuna

Herritar guztiok eskubidea dugu jakinarazpen, zitazio, errekerimendu judizial, epai eta ebazpen judizialek kontzeptu erraz eta ulergarriak izateko.

Gutun honi esker, erakunde publikoek eskubide hau bermatzeko legezko betebeharra daukate eta jada jurisprudentzia sortzen ari da honekin lotuta. Adibide moduan jar dezakegu hain ulergaitzak diren lurzoru klausulak, zeinetariko asko atzera bota behar izan baitituzte argitasun faltagatik.

Legezko betebeharrak horrekin bat eginez, Espainiako Gobernuak, 2009. urtean, Justizia Modernizazioaren Planaren babespean, Hizkera Juridikoaren Modernizaziorako Batzorde bat sortu zuen, zeina egoeraren azterketa eta gomendio-txosten bat egiteko sortu zen.

### 2.2.3. Hizkera argiaren aldeko mugimenduak

#### 2.2.3.1 Plain Language mugimendua

Kanadan dugu mugimendu honen abiapuntua, 2008ko uztailean, Plain language association internacional (PLAIN) irabazi asmorik gabeko elkartearen sortzean.

Haien helburua hizkera argiaren bidean proposamen praktikoak egitea da eta hizkuntza-gaiei erreparatzen diete gehienbat: lexikoa, sintaxia, puntuazio markak...

#### 2.2.3.2. Clarity mugimendua

Irabazteko asmorik gabeko Clarity elkartearen sortu zuen John Waltonek, pentsatzen zuelako hizkera juridikoa arkaikoa eta konplexuegia zela.

Bere iritzia babesten zuten beste abokatu batzuk bilatu nahian, UK Law Society Gazette aldizkarira gutun bat idatzi zuen, hizkera juridikoari buruz pentsamendu bera ote zuten jakiteko eta 28 abokaturen erantzuna jaso zuen.

Talde honen helburua, testu juridikoetan hizkera argia erabiltzea eta eremu hori garatzeko nazioarteko lantalde bat eraikitzea da.

Plain Language mugimenduaren aldean, Clarity edo Comunicación Clara mugimenduen ardatz nagusia “komunikazioa” kontzeptua da, eta hizkuntza gaietatik harago doazen alderdiei ere erreparatzen diete, hala nola tipografiak, irudiak, koloreak, ahotsaren erabilera, etab.

#### 2.2.3.3. Irakurketa erraza

Lectura Fácil Euskadi (Irakurketa Erraza deiturikoa) 2012an sortu zen Euskal Herrian.

Irakurketaren demokrazian eta integrazio sozialaren printzipioan oinarrituta, irakurketaren bidez pertsona hauen bizi kalitatea hobetzea lortu nahi da.

Irakurketa Errazak irakurketa, ikus-entzunezko eta multimedia baliabideak eskaintzen ditu irakurketa eta/edo ulermen arazoak dituzten pertsonentzat; ukalezina baita gure gizartean hainbat pertsonak dituzten nolabaiteko ulermen arazo, ezgaitasun intelektual,

dislexia, immigranteak izanda estatuko hizkuntza kontrolatzen ez dutenak, eskolatzeko urria dutenak etab.

#### 2.2.3.4. Lenguaje ciudadano

Lenguaje Ciudadano (Herritarren hizkera) mugimendua Hego Amerikako mugimendua bat da.

Administrazio eta enpresek formulatutako mezuak (ahozkoak, idatziak, elektronikoak etab.) era argi eta errazean idaztea du helburu, herritarrak behar duen informazioa erraz lortzeko asmoz.

#### 2.2.3.5. Legal Design

Design Thinking mugimenduaren testuinguruan jaio zen orain ez aspaldi eta Stanford Law School-en garatu da. Design Thinking soluzio eta ordezkotzat proposamenak identifikatu eta garatzeko prozesua azkartzen laguntzen duen metodologia bat da.

Mugimendu honen prozesua:

1. Erabiltzaile izan daitezkeen eta haien beharrak zeintzuk diren identifikatzea.
2. Helburua kokatu eta sintetizatzea.
3. Brainstorming (ideiak aztertu eta egokienak zein diren erabakitzea).
4. Jasotako ideiak baliagarriak diren egiaztatzea, erabiltzaileei egindako test baten bitartez.
5. Prototipoa garatzea, testaren emaitzak kontuan hartuta.

Legal Design mugimenduak metodologia hori ekarri du legegintzaren eta lege-zerbitzuen esparrura, bereziki, teknologia berriek eremu juridikoan eta herritarrekiko komunikazioan sortu dituzten erronkak jomugan hartuta.

### **2.3. Euskara juridikoa**

Historian zehar, euskara ez da beti hizkuntza ofiziala izan; beraz, hori lortu zenean, ez zegoen materialik Administrazioan euskaraz bizi ahal izateko. Horren ondorioz, zuzentasunari soilik erreparatu zitzaion eta horren ondorioz euskarazko testu ulergaitzak izan genituen eta euskaldunek erdarazko testuetara jotzeko beharra ikusten zuten, haiek askoz ulergarriagoak baitziren.

Itzulpen arazo hau arlo guztietan gertatu zen arren, guri dagokigun arloan jarriko dugu arreta: arlo juridikoan. Herritarra administrazioarekin edota justiziarekin harremanetan jartzea oso zaila da, baldin eta idazkiak, legeak, agiriak eta abar ulergaitzak badira. Gainera, testuak itzultzerakoan, jurista bakoitzak termino juridiko ezberdinak erabiltzen ditu eta horrek are zailagoa egiten du ulertzea.

Nahiz eta XIX. mendera arte euskarazko hainbat testu juridiko agertu, XIX. mende honetan aipatzekoa da zuzenbideari buruzko gogoeta eta dibulgazio genero juridikoa, zeinetan aipagarria den 1926an testu juridiko nagusi baten itzulpena (1924an Hipolito Larrakoetxeak ondutako Eleizaren Araudia/ Codex Juris Canonici), nahiz eta 1978ra arte ez zen argitaratu.

Hala ere, Antton Elosegik “Euskara juridikoak 25 urte betetzen dituenean” artikuluan aipatzen duen bezala, XX. mendean izan zen euskara juridikoaren hazkundera, ofiziala egin zen aldiarekin batera (1936tik 1937ra). Urte haietan, Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa/ Diario oficial del País Vasco argitaratu zen, garai hartan ekoiztutako arau guztien bilduma izan zena.

Etenaldiak izan ziren eta etenaldi nabarmen bat gertatu zen 1978ra arte (Espainiako Konstituzioa argitaratu zen urtea), hain zuzen ere, hizkera juridikoaren garapenaren abiapuntuaren urtea, estatus para-ofiziala eskuratu baitzuen euskarak Eusko Kontseilu Nagusiko Aldizkaria (EKNAO) kaleratzean, eta haren jarraitzaile izan da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA).

### 2.3.1. Nola ekin zitzaion euskal testu juridikoak ekoizteari (1979an)

1979an euskara batua zen testu juridikoen oinarri, batez ere ortografia, deklinabide eta konjugazio arloetan. Lexikoari dagokionez, ez zegoen ia garatuta ezta aztertuta ere.

Euskara arlo juridiko-administratibotik kanpo zegoen eta honetara sartzeko bide bakarra, erdarazko testuak itzultzea bazen ere, itzulpenak eredurik gabe egiteak lanen urritasuna ekarri zuen.

Itzultzaile bakoitzak beretzat egokia zen eredu propioa erabiltzen zuen, norberak aukeratutako lexiko, sintaxi eta estiloa erabiliz; beraz, honek lege-testuetako terminologian itzelezko arazoak sortu zituen.

Hona hemen adibide batzuk:

- “Anteproyecto de ley” itzultzerakoan, itzultzaile ezberdinek honako hauek jarri zituzten: *lege aurregitamu (1981)*, *Legearen egitasmozako (1983)*, *lege-egitamutarako (1983)*, *legearen aintzin-egitasmo (1983)*, *Lege-Aintzinegitasmo (1985)*, *Lege Egitasmo (1985)* eta *lege-aurreproiektu (1989)*, *lege proiektu (1996)* ...
- “Competencia exclusiva”: *bakarreango aginte (1982)*, *bakarreango agintza (1983)*, *erabateko aginpide (1991)*, *X-en ardurapean osorik jarria den aginbide (1991)*, *eskuduntza eskusibo (1994)* ...

### 2.3.2. Euskara juridikoari dagokionez izan dugun eboluzioa (1979tik aurrera)

Oraindik ere, ez dago euskara juridikoa bete-betean garatuta, beraren erabilerak sinbolikoa izaten jarraitzen baitu. Egia da zenbait alorretan askoz ere gehiago garatu dela hizkera, baina, hala ere, itzuli gabe dauden testuak ditugu.

Euskal legelariak benetan eta praktikan euskara erabili behar dute ulergarritasuna, argitasuna, segurtasun juridikoa eta terminologia-batasuna egoteko. Hizkuntzalariek eta hizkuntzaren teknikariek lagundu dezakete, baina testu juridikoen ekoizlearen eginkizuna da aukeratzea eta terminologia fintzea, hau etengabe berrituz, sortuz eta aldatuz eta, horretarako, testu-mota bakoitzaren araberrako hizkuntza maila edo erregistro ezberdinak menperatu beharko ditu.

### 2.3.3. IVA Pen langintza: hizkera (juridiko-administratibo) argiaren aldeko mugimenduen ildoan

### 2.3.3.1. IVAPen Hizkera argiaren bidetik liburua

1994an IVAPek (Instituto Vasco de Administración Pública) *Hizkera argiaren bidetik* liburua argitaratu zuen. Liburu honetan ikus daiteke administrazio hizkerak duen iluntasuna eta gardentasun falta, herritarrei zuzendutako testuak ulergaitzak direlako gehienetan; beraz, administrazio hizkera erraztearen beharra aldarrikatzen da liburuaren hitzaurrean bertan.

Helburua da langile euskaldunei eguneroko lanean sortzen zaizkien arazoei (itzulpengintzan, sorkuntzan, terminologian, idazkien diseinuan eta beste arloetan) aurre egiteko lagungarri izan daitezkeen tresnak eskaintzea.

### 2.3.3.2. IVAPeko estilo liburua (1996)

1996an IVAPen lehen estilo liburua argitaratu zen.

IVAPeko langile bakoitzak bere estilora egiten zituen idazkiak eta, horren ondorioz, ez zegoen inolako batasunik IVAPek argitaratutako dokumentuetan. Horrek arazoak ekarri zituen eta, arazook konpontzeko asmoz, idazteko gomendioak eskaini zituzten eta diseinua batzeko bideak zabaldu.

### 2.3.3.3. Argiro liburua

1997an euskararen normalizazio eta modernizazioari ekarpen bat egiteko helburuarekin, HAEEak (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak) *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak* liburua (Argiro izenaz ezagutua) argitaratu zuen.

Helburua zen euskaraz lan egiten duten euskal langileei beren jardunean behar dituzten tresnak eskuratzea, batez ere atal praktikoan, teorikoan baino gehiago; izan ere, aipatutako atal guztietan aipamen teorikoak daude, baina adibideak eta ariketak dira nagusi.

### 2.3.3.4. Zalantza-dantza liburua

2000an *Zalantza-dantza* liburua argitaratu zuen IVAPek.

Liburu honetan ortografia, hiztegia, morfologia eta joskera aztertzen da eta euskaraz idaztean eremu horietako zalantzak argitzea du helburu.

#### 2.3.3.5. *Duda-muda* eta *Galdezka* liburua

1997an sortu zen *Duda-muda* (gaur egun Dudanet deritzona) kontsulta-zerbitzua. 1997-2003 urte bitartean 4.000 galderei erantzun zitzairen eta erantzun horiek guztiak Interneten soilik ez egoteko helburuarekin, *Galdezka* liburua argitaratu zen erantzun horiek bilduta.

Egunerokotasunean sortzen diren euskarazko zalantzei aurre egitea du helburu.

#### 2.3.3.6. IVAPen 2005eko estilo liburua

Aurretik aipatutako 1996ko IVAPen estilo-liburua oinarri, gomendio berriak ematea beharrezkoa zela aurreikusi zuen IVAPek. Hori dela eta, estilo-liburu berri bat idatzi zuen 2005ean, langileak behar dituzten aholku, eredu eta argibide asko modu arin eta ulergarrian azalduz.

#### 2.3.3.7. IVAPen *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria

IVAPek *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria argitaratu izan du 1993 urtetik hiru hilean behin.

Aldizkariaren helburua, administrazioan euskararen erabilera egokia sustatzea da, eta horretarako, gai ezberdinetako testuak bilduz eta era egokian idazteko zenbait ariketa prestatuz.

1998ko urriko aldizkarian dagoeneko “Hizkera hiperrargiaz” artikulua idatzi zuen Antton Elosegik, non administrazioko hizkeraren egoera aztertu baitzuen.

#### 2.3.3.8. *20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos*



2017koa da azken lana eta “20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos” du izenburua.

Eusko Jaurlaritzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak IVAPi eskatu zion idazketa-jarraibide batzuk ematea, zuzendaritzako arlo juridikoko langileei testu argi eta kalitatezkoak idazten laguntzeko.

### **3. Metodologia**

#### **3.1. Aztertuko ditudan hizkuntza-arloak**

Azterketari ekiteko, ausaz aukeratutako lagin txiki bat (artikulu batzuek osatuta) izan dut oinarri. Lagin txiki horren mugak nabarmendu behar ditut: ateratako ondorioak behin-behinekoak dira eta, alde horretatik, ondorengo ikerketa sakonagoen pizgarri izan nahi du nire GRALak.

##### 3.1.1. Lexikoa

Lexikoaren arloan aldaketa ugari izan du euskarak azkeneko 2.000 urteetan. Aldi horretan, euskara beste hizkuntza batzuekin bizi izan da, maileguen etorrera eta asimilazioa izanik horren ondorio nagusia, gehienak latinetik eta inguruan sortuz joan diren erromantzeetatik etorriak, hain zuzen ere, gaztelania, frantsesa, gaskoi eta biarnesetik.

Gaur egun, lexiko tekniko eta modernoa garatzeari begira, neologia-sorkuntzan nazioarteko terminoen eta euskarazko altxorretik sortutako terminoen arteko oreka bilatzea da erronka nagusia.

Badakigu jada, hitzak bata besteari lotuta ez dugula testu bat osatuko. Testuan arau sintaktikoak eta semantikoak errespetatu behar dira; hala ere, hitz horietan gauzatzen da gure mezua, hitz horiek ondo aukeratzeak ekarriko du hartzailearekin komunikazioa izatea edo ez.

Garrantzitsua da halaber hitzak aukeratzean hartzailea kontuan izatea: Administrazioako langilea den edo herritarra, gaiaz zer dakien, zer egin behar duen informazio horrekin... Beraz, hitzen egokitasuna zaindu behar dugu, herritarrek ulertzeko modukoak izan behar baitira.

Beste alde batetik, eufemismoak ditugu, zeinak ordezkotako hitzak diren eta askotan gertatzen da dena delako hitza “egokia” ez izatea kontestu jakin batean, baina, beste kontestu batean, bai; horrelakoetan, hitz egiten ari denak ordezkatu egiten du.

Hizkera sexista ere nabarmendu beharra dago. Euskara, generorik gabeko hizkuntza da, baina hizkera sexista hau gaztelaniatik hartutako zenbait hitzetatik datorkigu.

Lexikoarekin zerikusia duten beste kontu batzuk ere badaude, hala nola akats ortografikorik ez egitea, hitz ezagunena erabili beharra, euskalkiak ez nahastea, hitz zehatzena erabiltzea, lotura hitzak (lokailuak) erabiltzea (izan ere, horrenbestez...), kakofoniak eta latinismoak ez erabiltzen saiatzea eta euskaran oso ohikoak diren maileguak ekiditea.

### 3.1.2. Terminologia

Lexikoa hiztegieta biltzen dugu, baina badakigu ez dela hori hitzen testuinguru naturala.

Terminologia zientzia edo ikerketa-esparrua da, eta horretaz gain, aplikazioa ere bada. Aplikazio hori espezialisten esku egongo da neurri batean. Terminoek ere testu espezializatueta dute kokalekua eta nekez azter daitezke inguru horretatik kanpo. Horregatik, terminologian aditua izan ez arren, espezialistak oinarrizko kontzeptuak eta baliabideak ezagutzea komeni da: hitzak sortzeko bideak zein diren, hizkuntza-arauak (hizkuntza orokorrak dituen mugak, alegia), hizkuntza orokorraren estandarizazio-bideak zein diren eta zein irizpiderekin ezarri diren, datu-base terminologikoen ezaugarriak zein diren eta nola erabil daitezkeen, terminologia dokumentazioa zer den, eta abar.

### 3.1.3. Fraseologia

“Terminologikoak ez diren baina alor jakin bateko testuek aski modu sarri eta finkoan darabiltzaten halako esapide eta egituren multzoari esaten diogu Fraseologia”, horrela definitzen du Juan Gartzia Garmendiak, euskal idazle, euskalari eta itzultzaileak.

Testu bateko unitate terminologikoen inguruko unitate konplexuek osatzen dute fraseologia. Izen, izenondo edo aditzez osatuak daude unitate hauek eta beren izaera sintaktikoa eta lexiko-semantikoa dute.

Beraz, honako hauek dira unitate fraseologikoen ezaugarri nagusiak:

- a) Egonkortasuna
- b) Osagaiak aldi berean agertzea

c) Maiztasun estatistikoa

d) Espezializazioa

## **4. Espainiako Konstituzioaren hiru bertsoak: testuingurua eta ezaugarriak**

### **4.1. 1978ko testua/ itzulpena**

Historia osoko testu juridikoak alderatuz, nabarmen ageri da 1936-37 aldian (euskararen ofizialtasunarekin etorri zen aldia), eta 1978an hasitakoan ekoizitakoak duen neurria gainerako garaiekin alderatuz; bai kopuruaren aldetik, bai gaien teknikotasunagatik, Antton Elosegik (2004) bere artikuluan aztertu zuen moduan.

Hasierako testu juridikoek zergatiko bakarra dute Antton Elosegiren iritziz: erabaki politiko baten ondorioz (euskara hizkuntza ofizial bihurtzea), gaztelaniaren parean agertu behar duela agintzen duena. Ez dago garbi, ordea, zertarako edo norentzat diren testu horiek.

Itzulpen-irizpideari dagokionez, oso nabarmena da terminotzat jotako hitz eta unitate lexikoak direla testu itzuliaren gunea; horien inguruan antolatzen baita testuaren osotasuna, nahiz eta abiatu berria zenez hizkuntzaren batasun prozesua, finkatu gabe zeuden lexikoa eta gramatikaren hainbat alderdi eta erraz igar daiteke erdal testuan terminoak non ageri diren, gaztelaniazko terminoak euskarazko terminoz itzuli nahi izateak dakar mailegutza eta kalkoaren agerpen ugaria.

Hala ere, eta aurrekoarekin kontrajarriz, terminogintza modernoari dagokionez, 1976an dago euskeraren abiapuntua, bertan aurkitzen baitugu testu espezializatuak eta hiztegi espezializatuak ugaritzen hasten diren unea.

Toki berezia zor zaio lehen aipatutako Hipolito Larrakoetxeak 1978an argia ikusi zuen Erroma'ko Eleizaren Araudia / Codex Juris Canonici liburu mamitsuari, hau baita ordura arte inoiz egindako euskal testu juridiko luzeena eta teknikoena.

Orokorrean, testuetan mailegutza lexikoak eta kalkoak pisu handia dute, eta testuinguru historiko-linguistiko kaxkar horretan kokatu behar dugu 1978ko itzulpena. Azpimarratzekoa da, hala ere, garai hartako IVAPeko eskola garbizaleari bizkar emanda gauzatu zela 1978ko itzulpena.

## 4.2. 2004ko testua/ itzulpena

Hau da 2004ko Espainiako Konstituzioaren bertsioaren Hitzaurrean Andres Urrutiak dioena: “Espainiako Konstituzioa da berori, gaztelaniaz eta euskaraz, haren 25. urteurrena bete eta Espainiako Senatuaren enkarguz Euskaltzaindiaren Lege Batzordeak prestatu duena, 1978. urteko euskal bertsioa egokitu eta eguneratu duela.”

Autonomia berreskuratzekoan, 1979ko Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuen, 6. artikuluan, eta ofizialtasunaren ondorio zuzena hau izan zen: arauak, Autonomia Erkidegoarenak behinik behin, euskaraz ere argitaratu beharra eta, ondorioaren ondorio, euskaratu beharra.

1980an bi eskola nabarmendu ziren:

- Lehenengo joera “eskola garbizale” deitu dezakegu, zeina lehenengo autonomi garaiko (1936-1937) tradizioarekin lotzen den. Bere izenak esaten duen bezala, garbizalea da, eta maileguren erabilpen murrizaren aldekoa da. Euskararen formak gorde nahi ditu, nahiz eta horrela itzulpenean gorde behar diren ñabardurak galdu, baina bere izaera garbizaleagatik ere herri hizkeratik urruntzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta Legebiltzarrean kokaturik izan zen.
- Bigarren joera “maileguzale” deitu dezakegu, eta hizkuntzaren modernizazio eta estandarizazio ahaleginekin, eta euskararen erabilera berriei erantzun nahi dien mugimenduarekin lotzen da. Beste hizkuntzetako terminologiaren zehaztasuna gorde nahi da, eta hitz mailegatuak sarritan erabiltzen dira, eta maiz euskara ortopedikoa ere erabiltzen ditu joskeraren aldetik.

2000. urtean Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren lehenbiziko bertsioa argitaratu zuen, Hiztegi Batua izenarekin eta hiztegi horrek eragin handia izan du idazleen artean, denek aitortzen dutenez, eta batasuneko bidean hainbeste gauza berdintzeko balio izan du.

Hala ere, Euskaltzaindiaren hiztegi hori batez ere Orotariko Euskal Hiztegiaren oinarritzen da, hau da, historian zehar idatzitako testuetan, nahiz ez den hori iturri bakarra, azkeneko urteetan testu modernoak ere erabili izan direlako hurrengo itzulietan.

### 4.3 2006ko testua/ itzulpena

Espainiako Konstituzioaren itzulpen hau egiteko beharrezkoak izan ziren bi profesionalen lanen bateratzea: Zuzenbidearen esparru eta adar ezberdinetatik etorritakoena eta hizkuntzalari adituena; hau azaltzen du Joseba Azkarraga Roderok, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak Konstituzioaren 2006ko bertsioan bertan.

Itzelezko garrantzia dauka Euskal Herriko Autonomia Erkidegoarentzat, azaroaren 24ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Konstituzioko 3.2 artikulutik eratorritako hizkuntza koofizialtasuna onartzen zuen lehen mugarrria izan zelako.

Ikusi dugun bezala, 1978ko Espainiako Konstituzioaren euskarazko hainbat itzulpen daude eta bi dira argitaratuak: Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, eta 25. urtemuga zela-eta 2004an egindako egokitzapena.

Hala ere, itzulpen literalak direla eta, ez dira oso argiak eta bertsio honek zentzuari leial izatea bilatzen du, formari leial izatea baino gehiago.

Ia 30 urte izanik, zaharkiturik gelditua zen testu honen euskarazko lehen moldapena alde askotatik; ez bakarrik euskara batuaren ikuspegitik. Arlo guztietan bezala, hizkera juridiko-administratiboan ere bidea egin du euskarak urteotan, normalizaziorantz: bai hiztegi orokorrean, bai terminologian, bai fraseologian, eta bai sintaxian ere, eragozpenak eragozpen eta zailtasunak zailtasun.

## 5. Hiru bertsioren azterketa eta hobekuntza-proposamenak

Hiru bertsioren azterketa egiteko, aztergai bakoitzari kolore bat esleituko diogu, bertsiio bakoitzean aztergai izango ditudan alderdi aipagarriak bereizteko Espainiako Konstituzioko bertsiio ezberdinen ataletan.

Lexikoa: gorria

Terminologia: berdea

Fraseologia: morea

### ATARIKO TITULUA

#### 1. artikulua

	1978	2004	2006
1. España <b>se</b> <b>constituye</b> en un Estado social y democrático de Derecho, que propugna como <b>valores</b> superiores de su ordenamiento jurídico la libertad, la justicia, la igualdad y el <b>pluralismo político.</b>	1. artikulua 1. Espainia Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko bat batetan <b>eraikitzen da,</b> eta beraren <b>balore</b> nagusi bezala, lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta <b>politik aniztasuna.</b>	1. artikulua 1. Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa <b>eratzen du,</b> eta, beraren antolamendu-juridik oaren <b>balio</b> nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta <b>aniztasun</b> <b>politikoa</b> aldarrikatzen ditu.	1. artikulua 1. Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko <b>gisa</b> <b>eratzen da,</b> bere ordenamendu juridikoaren <b>balio</b> gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta <b>pluralismo politikoa.</b>
2. La <b>soberanía</b> <b>nacional</b> reside en el pueblo español, del que <b>emanan</b> los poderes del Estado.	2. <b>Subiranotasun</b> <b>nazionala</b> Espainiako herrian <b>datza,</b> eta honengandik	2. <b>Nazioaren</b> <b>subiranotasuna</b> Espainiako herrian	2. <b>Subiranotasun</b> <b>nazionala</b> Espainiako herriari <b>dagokio,</b> eta harengandik



<p>3. La forma política del Estado español es la Monarquía parlamentaria.</p>	<p>darizkio Estatuaren botereak.</p> <p>3. Estatu Espainolaren politik era Monarkia parlamentaria da.</p>	<p>datza, eta hortik sortzen dira estatuaren botereak.</p> <p>3. Espainiako estatuaren eredu politikoa parlamentu-monarkia da.</p>	<p>datozkio Estatuari botereak.</p> <p>3. Espainiako estatuaren forma politikoa monarkia parlamentarioa da.</p>
---	---	--	---

## Lexikoa

*Se constituye en*, Euskatermek dakarren *constituirse en audiencia pública*, entzunaldi publikoa eratu ereduaren arabera itzul daiteke esapidea (2004: *Espainiak (...) estatu demokratikoa eratzen du*; 2006: *Espainia ... estatu demokratiko gisa eratzen da*). Beraz, *eraiki* aditzaren adierak kontuan harturik, ez dirudi egokia denik 1978ko bertsioan ageri den esapidea (*Espainia ... estatu demokratiko batetan eraikitzen da*).

*Valor* testuinguru honetan, *balio* gisa itzuli behar da (2004 eta 2006). 1978ko bertsioiko *balore* itzulpena ekonomiako terminologiari dagokiolako, Euskalterm eta Euskaltzaindiaren Hiztegiaren irizpideei jarraituz.

Euskaltermek *aniztasun politiko* ordaina dakar *pluralismo político* adierazteko eta hori da 2004ko bertsioan erabili duten esapidea; baina 2006ko bertsioiko *pluralismo politiko* ere aldaera zuzena da (ik. pluralismo Euskaltzaindiaren Hiztegian). 1978ko bertsioiko *politik aniztasun*, berriz, guztiz baztertzekoa da, euskaraz izenondo erreferentzial mailegatu bakarra *politiko* baita.

*Forma política*-ren arazoa *forma* itzultzean agertzen zaigu. Ikus dezakegunez, hainbat eratan itzuli da bertsio ezberdinetan; *era*, *eredu* eta *forma* ditugu hitz honen itzulpen, baina azken hori (*forma*) da hobestekoa, zehatzagoa baita *eredu* baino. Edozein modutan, guztiz baztertzekoa da 1978ko bertsioiko esapidea (*politik era*); izan ere,

lehenago esan bezala, ez baitago euskaraz *politik* moduko hitzik, ez izenondorik, ez izenik. 1978ko bertsioko egitura edo molde horiek (*politik era, politik aniztasuna...*) agerian uzten dute garai hartako irizpide linguistikorik eza.

### Terminologia

*Estado social y democrático de derecho*-ren ordain gisa erabili dute *Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko* 1978ko bertsiotan, baina *Derecho* terminoaren ordaina ez da *eskubide*, ezpada *zuzenbide*. Gainera, 2006ko bertsiotan ikusten dugun bezala, *zuzenbide-estatu* hobesten da gaur egun.

Beste alde batetik, *ordenamiento jurídico, lege araugintza* bezala itzultzen da 1978ko bertsiotan eta *antolamendu-juridiko* 2004ko bertsiotan; baina Euskaltermen arabera *ordenamendu juridiko* da termino gomendatua, hain zuzen ere, 2006ko bertsiotan agertzen dena.

*Soberanía nacional* ondo itzultzen da 1978ko eta 2006ko bertsiotan: *subiranotasun nazional*. 2004ko bertsiotan *Nazioaren subiranotasuna* erabili da, hain zuzen ere, Euskaltermek, *subiranotasun nazional* terminoarekin batera, termino gomendatu gisa onartzen duen aldaera.

*Estado español* terminoaren itzulpena 1978ko bertsiotan *Estatu Espainol* da eta, txarto egon ez arren, Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, *Espainol* minuskulaz idatzi behar da eta, edozein modutan, Euskaltzaindiak finkatutako *Espainiako Erresuma* ereduari jarraituz, hobestekoa da 2004ko eta 2006ko bertsiotan ageri den *Espainiako estatu*.

Euskaltermek *monarkia parlamentario* ordaina dakar *monarquía parlamentaria* terminoaren ordain gisa, 2006ko bertsiotan agertzen den bezala.

### Fraseologia

*Se constituye en, terminoaren ordain gisa batetan eraikitzen da agertzen da 1978ko bertsioan eta demokratiko gisa eratzen da 2006koan, zeina hobestekoa baita, batetan eraikitzen da ez delako egokia.*

*La soberanía reside en el pueblo* esapidea bi modutan itzuli da: *herrian datza* (1978, 2004); *herriari dagokio* (2006). Hizkuntzaren ikuspegitik biak dira zuzen eta egokiak, baina, zuzenbidearen ikuspegitik, beharbada egokiagoa da bigarren esapidea (2006).

*Los poderes emanan (del pueblo)* esapidea hiru modutan itzuli da: a) *honengandik [herriarengandik] darizkio [botereak]* (1978); b) *hortik [herritik] sortzen dira [botereak]* (2003); c) *harengandik [herriarengandik] datozkio [botereak estatuari]*. Lehen ordaina hitzez hitzezko itzulpena da (darizkio: “emanan”), poetikoagoa, agian; eta egokiagoak dira beste biak.

## BIGARREN KAPITULUA

### Eskubideak eta askatasunak

#### LEHEN ATALA, Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak

##### 15. artikulua

	1978	2004	2006
15. Todos tienen derecho a la vida y a la integridad física y moral, sin que, en ningún caso, puedan ser sometidos a tortura ni a penas o tratos inhumanos o degradantes. Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las	15. Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ezgizakor edo itsusietara. Heriotza zigorra baztertua geratzen da,	15. Guztiek bizitza eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasaezin edo apalesgarririk ere. Heriotza-zigorra indarririk gabe geratzen da,	15. Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin pairaraziko zaio, ezein kasutan, ez torturarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo traturik. Ezeztatzen

leyes penales militares para tiempos de guerra.	salbuespen bezala gerrateetarako Harmadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batetara utziz.	zigor-lege militarrek gerraldirako xeda dezaketenari kalterik egin gabe.	da heriotza-zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra-denborarako.
---	---	---	--

## Lexikoa

*Inhumano* izenondoaren (*pena o trato*) ordain gisa hauek erabili dira: *ezgizakor* (1978), *jasaezin* (2004) eta *gizatasunaren kontrako* (2006). Dena dela, Euskaltzaindiaren Hiztegian ez daude jasota, ez *ezgizakor* eta ez *jasaezin*. 2006ko proposamenak (*gizatasunaren kontrako*), berriz, ez du inolako aitzakiarik, eta argi eta gardena iruditzen zait.

*Itsusi(etara)* erabili dute 1978ko bertsioan, *apelasgarri(rik)* 2004ko bertsioan eta *duintasunaren kontrako* 2006ko bertsioan *degradante* izenondoaren (*pena o trato*) ordain moduan. Euskaltermen, Zigor-arloa eta Espetxe-zaintza Hiztegian (2015) jasotako *delito de trato degradante* agertzen zaigu, zeina honela itzultzen den: *tratu apalesgarriaren delitu*. Ondorioz, 2004ko bertsioaren ordaina da Euskaltermek gomendatutakoarekin bat datorrena. Ordain zehatzena da: *itsusi* zabalegia baino askozaz egokiagoa, eta *duintasunaren kontrako* baino zehatzagoa, seguru asko (izan ere, *indigno* izenondoaren ordain gisa ere erabil liteke).

(*Para*) *tiempos de guerra* esapidearen ordain gisa: *gerrateetarako* (1978), *gerraldirako* (2004) eta *gerra-denborarako* (2006) proposatu dituzte. Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide politikoaren legeriari buruzko berbategiak, *guerra dagoenean* proposatu du ordain gisa eta proposamen guztiek dirudite zuzen eta gardenak: ez dago funtsezko alderik haien artean esanahiari dagokionez.

## Terminologia

*Abolir* terminoaren aurrean gaude kasu honetan: *baztertu* (1978), *indarrik gabe geratu* (2004), *ezeztatu* (2006). Zabalegia da lehen ordaina (*baztertu*), eta onargarriak beste biak. UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoan *indargabetu* proposatzen da, “*derogar*” eta “*abolir*” adierazteko. Izan ere, ia baliokideak dira biak, DPEJren (Diccionario Panhispánico del Español Jurídico) arabera. Beste aukera bat izan liteke honelatsu-edo bereiztea euskaraz: *abolir*: *ezeztatu*, *derogar*: *indargabetu*.

*Ley penal militar*-en ordain moduan *harmadako zigor lege* (1978), *zigor-lege militar* (2004) eta *lege penal militar* (2006) proposatu dituzte. *Militar* izenondoaren ordainari dagokionez ez dago zalantzarik gaur egun (EH (Elhuyar Hiztegia): *militar*). Edozein kasutan, *armada* idazten da gaur, eta ez, *harmada* (1978). *Zigor(-)lege / Lege penal* bikoteari dagokionez, biak dira zuzenak, baina Euskaltermek *zigor-lege* gomendatzen du.

## Fraseologia

*Tienen derecho a la vida y a la integridad física y moral*-en ordain gisa esapide hauek erabili dira: *bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea* (1978), *bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea* (2004) eta *bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea* (2006). 1978ko egitura ez da zuzena: (...) *osotasun FISIKO eta moralerako eskubidea* behar du (2004ko bertsioan agertzen den moduan). Berez, bi osagai ditu egiturak: a) *derecho a la vida* (DPHJ) terminoa; b) *derecho a la integridad física y moral* esapidea. Euskaraz *bizitza* # *bizi* izenen arteko berizkuntza kontuan harturik, egokia dirudi 2006ko egitura juntatuak (*-tzeko eskubidea eta Xrako eskubidea*).

*Ser sometidos a tortura*-ren ordain gisa: *meneratu torturetara* (1978), *torturarik egin* (2004), *pairaraziko (...) torturarik* (2006) agertzen dira. Kasu honetan, literalegia da 1978ko itzulpena, eta onargarri eta nahiko hurbilak beste biak.

*Salvo (lo que puedan disponer)* esapidearren ordain moduan: *salbuespen bezala (...)* *albo batetara utziz* (1978), *-i kalterik egin gabe* (2004) eta *non eta ez duten* (2006)

ditugu. Hiru proposamenak dira zuzen eta ulergarriak, baina 2006koak erakusten du ez dagoela zertan beti esapide bera erabili: *-i kalterik egin gabe* edo *-en kalterik gabe*.

## BIGARREN ATALA

Herritarren eskubideak eta betebeharrak

### 36. artikulua

	1978	2004	2006
36. La ley regulará las peculiaridades propias del régimen jurídico de los Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas. La estructura interna y el funcionamiento de los Colegios deberán ser democráticos.	36. Legeak arautuko du Kolejio Profesionalen lege errejimenaren eta tituludun profesioen iharduera ere bai. Kolejioen barne egitura eta iharduera demokratikoek izan behar dute.	36. Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.	36. Legeak arautuko ditu profesionalen elkargoen araubide juridikoaren berezitasunak eta lanbide tituludunetako jarduera. Elkargoek demokratikoak izan beharko dute barne-egituraz eta jokamoldez.

### Lexikoa

*Berezitasunak* erabili dute 2006ko bertsioan *peculiaridades*-en ordain gisa, Euskaltzaindiaren Hiztegiak proposatutako adierarekin bat. 1978ko eta 2004ko bertsioetan ez da *peculiaridades* hitza itzuli ere egin.

*Iharduera* (1978) eta *jarduera* (2004, 2006) erabili dute *ejercicio* (*de las profesiones tituladas*) hitzaren ordain gisa. Hiztegi Batuan ikus daitekeenez, Euskaltzaindiak aspaldi finkatu zuen *jarduera* idazkera.

*Funcionamiento*-ren ordain gisa (*funcionamiento de los Colegios*), *iharduera* daukagu 1978ko bertsioan, zeina desegokia den (aurreko parrafoan azaldutakoagatik). 2004ko bertsioan ordain gisa proposatzen du *jardunbide* eta 2006ko bertsioak *jokamolde*. Testuinguru honetan egokia izan liteke *jardunbide* erabiltzea, elkargoen “*jarduna*” baitugu hizpide. Beste alde batetik, 2006ko bertsioaren *jokamolde* daukagu, zeina Euskaltzaindiaren Hiztegiak honela definitzen duen: *iz. Jokabidea. Giza jokamoldea arautzen duten legeak*. Beraz, jarrerarekin erlazionatzen dugu eta, nire ustez, ez litzateke guztiz egokia izango. Proposamenak proposamen, nik uste dut *funzionamendu* dela aukerarik zehatz eta hurbilena (Euskaltzaindiaren Hiztegian aspalditik jaso).

### Terminologia

*Régimen jurídico*-ren ordain gisa hauek proposatu dituzte: *lege errejimen* (1978), *araubide* (2004) eta *araubide juridiko* (2006). Idazkerari dagokionez, argi dago *erregimen* dela idazkera zuzena eta ez *errejimen* (1978). Dena dela, gaur egun nahikoa hedatuta eta finkatuta dago arlo juridiko-administratiboan *araubide juridiko* ordaina (ikus Euskalterm eta Epaitegietako lexikoa).

*Colegios Profesionales*-en baliokide bezala 1978ko bertsioak *Kolejio Profesional* proposatzen du, 2004ko bertsioan *lanbide-elkargo* eta 2006ko bertsioan *profesionalen elkargo*. Idazkerari dagokionez, argi dago *kolejio* finkatu dela hiztegi batuan (EH: Euskaltzaindiaren Hiztegia) eta ez *kolejio* (1978). Zuzenbide politikoaren lexikoan eta prozedura zibilaren legearen lexikoan, *colegios profesionales*-en ordain gisa *lanbide-elkargoak* proposatzen da, 2004ko bertsioarekin bat etorriz. Beste alde batetik, Euskaltermek eta Epaitegietako lexikoak *profesionalen elkargo* proposatzen dute, 2006ko bertsioarekin bat eginez. Nire ustez, 2004ko eta 2006ko bertsioako ordainak zuzen eta egokiak dira: “izena + izena (*lanbide-elkargo*)”; “izenlaguna (-en) + izena (*profesionalen elkargo*)”.

*Profesiones tituladas*-en ordainaren bilaketa egitean hainbat hiztegitan, ez dugu ezer ere aurkitzen, baldin eta hitzak batera bilatzen baditugu. Beste alde batetik, hiru bertsioak konparatuz, desadostasuna soilik aurkitzen dugu *profesiones*-en ordainarekin (1978ko bertsioan *profesio* proposatuz eta 2004 eta 2006ko bertsioetan *lanbide*), *tituladas*-en

ordainarekin ados baitaude. Hori dela eta, *profesión*-en ordain egokia zein den begiratu beharko dugu. Euskaltermen bilaketa eginez, *lanbide* proposatzen da *profesión*-en baliokide Zuzenbidearekin erlazonatutako emaitza guztietan eta gomendio hori bat dator Euskaltzaindiaren Hiztegiaren aukerarekin, *lanbide* lehenesten baitu eta ez *profesio*. Sintagmen hurrenkerari dagokionez, zuzenak dira bi egiturak (*tituludun lanbide*, 2004; *lanbide tituludun*, 2006), baina 2006koa da idazleen tradizio zaharrarekin bat datorrena (“iz. + iz.-dun”).

## HIRUGARREN KAPITULUA

Politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipioak

### 47. artikulua

	1978	2004	2006
47. Todos los <b>españoles</b> tienen derecho a disfrutar de una <b>vivienda</b> digna y <b>adecuada</b> . Los poderes públicos promoverán las condiciones necesarias y establecerán las normas pertinentes para <b>hacer efectivo este derecho</b> , regulando la <b>utilización del suelo</b> de acuerdo con el <b>interés general</b> para impedir la especulación.	47. <b>Espainol</b> guztiek <b>bizitza</b> duin eta <b>egokizko</b> bat izateko eskubidea dute. Botere publikoek behar diren baldintzak bultzatuko dituzte eta arau erokoak ezarriko <b>eskubide hau egiaztatzeko</b> , <b>lurraren erabilpena</b> arautuz <b>interes orokorraren arabera</b> espekulazioa baztertzeko. <b>Erkidegoak</b> erakunde publikoetako <b>hiri</b>	47. <b>Espainiar</b> guztiek <b>etxebizitza</b> duin eta <b>egokia</b> izateko eskubide dute. Botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, <b>eskubide hori eragingarria izan</b> dadin; eta, espekulazioa desagerrarazteko, <b>interes orokorraren arabera</b> arautuko dute <b>lurraren erabilera</b> .	47. <b>Espainiar</b> guztiek dute <b>etxebizitza</b> duin eta <b>egokia</b> izateko eskubidea. Botere publikoek bideak jarriko dituzte <b>eskubide hori gauzatzeko</b> , eta dagozkion arauak ezarriko dituzte, <b>interes orokorrari begira</b> arautuz <b>lurzoruaren erabilera</b> , espekulaziorik izan ez dadin. <b>Erkidegoak</b> parte izango du erakunde



La comunidad participará en las plusvalías que genere la acción urbanística de los entes públicos.	ekintzek dakartzaten plusbalietan parte hartuko du.	Erakunde publikoen hirigintza-jarduerak gainbalioa sortzen badu, gizarteak horietan parte hartuko du.	publikoen hirigintzak eragiten dituen gainbalioetan.
--	---	---	--

## Lexikoa

*Español* terminoaren itzulpena 1978ko bertsioan *espainol* da eta, EHren arabera, zuzena da *espainol*; 2004ko eta 2006ko bertsioetako *espainiar* bezain zuzena. Izan ere, sinonimotzat jotzen ditu EHk. Dena dela, Euskaltermen arabera eta Epaitegietako lexikoaren arabera, arlo juridikoan gutxitan erabiltzen da *espainol* herritarrek izendatzeko (erabiltzen denean, izenondo moduan ageri da gehienbat).

Bi modutan itzuli da *vivienda*: *bitza* (1978), *etxebitza* (2004, 2006). Bi ordainak dira zuzenak, baina markatua da *bitza* hitzaren adiera hori (4. adiera) eta egungo euskara estandarrean *etxebitza* finkatu da adiera horretan.

*Adecuada* (*vivienda* \_ ) izenondoaren ordainari dagokionez, gaurko euskara estandarrean guztiz finkatu da *egoki* (2004, 2006), eta ez dago *egokizko* (1978) horren arrastorik.

*Utilización (del suelo)* itzultzeko bi aldaera hauek erabili dira: *erabilpen* (1978) eta *erabilera* (2004, 2006). EHk *erabilera* lehenesten du, eta, beraz, aukera hori da hobestekoa (ik. *erabilpen*).

## Terminologia

*Comunidad* terminoaren ordaina ematerakoan bat datoz 1978ko eta 2006ko bertsioak: *erkidego*. 2004ko bertsioko *gizarte*, berriz, zabalegia da adierari dagokionez. Gaur egun, *erkidego* nahiz *komunitate* mailegua erabiltzen dira *comunidad*-en ordain gisa (Euskalterm, EH).

*Plusvalía* terminoa itzultzeko *plusbalia* mailegua erabili da 1978ko bertsioan, eta *gainbalio* hurrengoetan. Gaurko euskaran (EH: *gainbalio*), eta orobat euskara juridikoan (Euskalterm: *gainbalio*), *gainbalio* finkatu da ordain gisa.

*Acción urbanística*-ren ordain gisa proposamen hauek ditugu: *hiri ekintzek* (1978), *hirigintza-jarduera* (2004), *hirigintza* (2006). Euskaltermen ikus daitekeenez, gaurko euskara estandarrean *hirigintza* finkatu da zuzenbidearen eta administrazioaren arloan *urbanístico* izenondo erreferentziala itzultzeko, eta horretan bat datoz 2004ko eta 2006ko itzulpenak. Edozein modutan ere, egokiagoa da 2006ko proposamena (*hirigintza*), 2004ko esapide kalkatu eta erredundantea baino (*hirigintza-jarduera*). Izan ere, -gintza atzizkiak ekintza edo jarduera adierazten du.

### Fraseologia

*Hacer efectivo este derecho* esapidea itzultzeko proposamen hauek ditugu: *eskubide hau egiaztatu* (1978), *eskubide hori eragingarria izan* (2004), *eskubide hori gauzatu* (2006). Lehen ordainari dagokionez, esan beharra dago ez datozela bat EHK ematen dion adiera (*egiaztatu*) eta testu honetan ematen zaiona. Bestalde, lausoegia iruditzen zait 2004ko proposamena (*eskubidea eragingarria izan*). Beraz, *eskubidea gauzatu* dirudi aukerarik egokiena; izan ere, bat dator gauzatu aditzaren 2. adierarekin (“*Gauza-izaera eman edo hartu; asmo edo ideia bat besterik ez denari izatasuna eman*”).

*De acuerdo con el interés general* esapidearen ordain gisa esapide hauek ageri dira: *interes orokorraren arabera* (1978, 2004) eta *interes orokorrari begira* (2006). Bi ordainak dira zuzen eta egokiak.

### III. TITULUA

GORTE NAGUSIAK

LEHEN KAPITULUA, Ganberak

67. artikulua

	1978	2004	2006
<p>1. Nadie podrá ser miembro de las dos Cámaras <b>simultáneamente</b>, ni <b>acumular el acta de una Asamblea de Comunidad Autónoma</b> con la de Diputado al Congreso.</p> <p>2. Los miembros de las Cortes Generales no estarán ligados por <b>mandato imperativo</b>.</p> <p>3. Las reuniones de <b>Parlamentarios</b> que se celebren sin <b>convocatoria reglamentaria vincularán</b> a las Cámaras, y no podrán ejercer sus <b>funciones</b> ni ostentar sus privilegios.</p>	<p>67. artikulua</p> <p>1. Inor ezin da izan <b>era berean</b> bi Ganbaratako kide, ez eta <b>gehitu</b> Erkidego Autonomaren Biltzar izendapena Diputatuen Biltzarrekoarekin.</p> <p>2. Gorte Orokorreko kideak ez dira <b>inoren</b> agintzeari lotuak izango.</p> <p>3. <b>Parlamentari</b> bilerak <b>arauzko deitze</b> batez egiten ez badira ez ditu Ganbarak <b>lotaraziko</b>, eta beraien <b>funtziorik</b> ezin dute erabili ez eta <b>pribilejiorik</b> eduki ere.</p>	<p>67. artikulua</p> <p>1. Inor ezin da <b>aldi berean</b> izan bi ganberatako kidea, eta inork ezin du <b>autonomia-erkidegok</b> o biltzar-akta izan Kongresuko diputatuarenarekin <b>batera</b>.</p> <p>2. Gorte Nagusietako kideak ez daude <b>manuzko</b> aginduaren menpe.</p> <p>3. <b>Parlamentukideen</b> bilerak <b>arauzko deialdirik</b> gabe egiten badira, ez dira <b>lotesleak</b> ganberentzat, eta ezin dituzte euren <b>eginkizunak</b> bete, ez eta <b>pribilejiorik</b> izan ere.</p>	<p>67. artikulua</p> <p>1. Inor ez daiteke izan <b>aldi berean</b> bi ganberetako kide, eta inork ez ditzake <b>batera</b> eduki autonomia-erkidego bateko <b>legebiltzarkide-akta</b> eta <b>Kongresuko</b> diputatuarena.</p> <p>2. Gorte Nagusietako kideak ez dira <b>aginduzko</b> mandatuz loturik egongo.</p> <p>3. <b>Erregelamenduaren</b> araberako <b>deialdirik</b> gabe egiten diren <b>parlamentari</b> bilerek ez dituzte Ganberak <b>lotuko</b>, eta ezin beteko dituzte haien <b>eginkizunak</b>, ez haien <b>pribilegioen</b> jabe agertu.</p>

--	--	--	--

## Lexikoa

*Simultáneamente*-ren ordain gisa *era berean* (1978ko bertsioan) eta *aldi berean* (2004 eta 2006ko bertsioan) proposatu dira. EH eta OEH kontsultatuz, ikus dezakegu *aldi berean* dela *simultáneamente* adberbioaren baliokide zehatza, 2004 eta 2006ko bertsioekin bat, beraz, denborazko esapide hori hartu behar da egokitzat. Bestalde, 67. artikulua testuinguruan desegokia da *era berean* esapidea, ez baitu “aldia” adierazten, “era edo modua” baizik.

*Vincular (a las cámaras)* aditzaren ordain gisa itzulpen hauek ditugu: *lotarazi* (1978), *loteslea izan* (2004), *lotu* (2006). Hiztegiak, corpusak eta banku terminologikoak kontsultatu ondoren, badirudi nahiko argi eta zehatzak direla azken bi aukerak (*loteslea izan*, *lotu*). Hala ere, zuzenbidean (Epaitegietako lexikoa) *lotetsi* ere erabili izan da, eta ez dirudi baztertzekoa denik.

*Función* izenaren ordain gisa hauek proposatu dituzte aztergai ditugun bertsioek: *funtzio* (1978), *eginkizun* (2004 eta 2006). EHk biak (*funtzio*, *eginkizun*) jasotzen ditu ia baliokide gisa. Beraz, hiru bertsioetako itzulpenak ontzat har daitezke.

## Terminologia

*El acta de una Asamblea de Comunidad Autónoma*-ren ordainak aztergai diren hiru bertsioetan: *Erkidego Autonomaren Biltzar izendapena* (1978), *autonomia-erkidegoko biltzar-akta* (2004), *autonomia-erkidego bateko legebiltzarkide-akta* (2006). Euskaltermek, Administrazioako terminologia hiztegian, *Asamblea Legislativa de una Comunidad Autónoma*-ren ordain gisa *autonomia-erkidegoko legebiltzar* proposatzen du, eta, beraz, sintagma horren hedapena da 2006ko itzulpena. Aspalditik, *autonomia-erkidego* finkatu du Euskaltzaindiak eta, beste alde batetik, ez da batere zehatza 1978ko itzulpena (*acta de una asamblea: Biltzar izendapena*). Zehatzagoa da 2004koa (... *biltzar-akta*), eta are zehatzagoa 2006koa (... *legebiltzarkide-akta*). Bide

batez, saihestu ezinezkoa da *akta* hitza, beharrezkoa da bat zenbatzailea (*autonomia-erkidego bateko...*) eta letra xehez idaztekoak dira sintagma osatzen duten hitz guztiak.

*Congreso*-ren (de los diputados) ordain gisa: *biltzar* (1978) eta *kongresu* (2004 eta 2006) proposatu dira. Urteen buruan, (*diputatuen*) *kongresu* geratu da finkatuta, bai EHn, bai Euskaltermen, nahiz eta *biltzar* hitza erabilgarria den adiera zabalagoan.

*Cortes Generales*-en ordain gisa *Gorte Nagusiak* proposatzen dute Euskaltermek, Administrazio eta Prozedura Legearen Glosarioak (1998), Hauteskunde Hiztegiak (2012). Beraz, 2004 eta 2006ko bertsioen ordainak hobesten dira, 1978ko bertsioan proposatutako *Gorte Orokorreko*-aren kontra.

(*Bajo*) *mandato imperativo* terminoaren ordain gisa bertsio ezberdinek hauek proposatu dituzte: *inoren agintze(ari lotuak)* (1978), *manuzko agindu(aren menpe)* (2004), *aginduzko mandatu(z)* (2006). Euskaltermek *aginduzko mandatu* proposatzen du, 2006ko bertsioan proposatutakoarekin bat.

*Parlamentario* izenaren ordain gisa *parlamentari* (1978, 2006) eta *parlamentukide* (2004) proposatzen dira. Bai EHk, bai Euskaltermek *parlamentari* finkatu dute, baina ondo eratuta dago *parlamentukide* izena (*legebiltzarkide* bezala).

*Convocatoria reglamentaria*-ren ordain gisa hauek proposatzen dira: *arauzko deitze* (1978), *arauzko deialdirik* (2004), *Erregelamenduaren araberrako deialdirik* (2006). Hirurak dira zuzenak, baina “gardenago edo ulergarriagoa” da 2006ko proposamena.

## Fraseologia

*Acumular*: *gehitu* (1978), *izan batera* (2004), *batera eduki* (2006). Nire ustez, testuinguru horretan zuzen eta gardenak dira 2004ko (*izan X-rekin batera*) eta 2006ko (*batera eduki*) esapideak; eta literalegi eta desegokia 1978ko itzulpena.

*Ostentar sus privilegios* honela itzuli da bertsiio ezberdinetan: *pribilejiorik eduki* (1978), *pribilejiorik izan* (2004), *pribilegioen jabe agertu* (2006). Hiru esapideak dira argiak, baina, EHren arabera, *pribilegio* da idazkera zuzena. Edozein modutan, euskaraz dagoen aldakortasun horrek agerian uzten du esapide (juridiko) batzuen finkatze eza.

## 6. Ondorioak

Ondorioak atera ahal izateko, aztertutako lagin txikiaren lexikoa, terminologia eta fraseologia bildu ditut taula batzuetan, 1978ko, 2004ko eta 2006ko bertsioak konparatu ahal izateko:

### LEXIKOA

	1978	2004	2006
constituirse “se constituye en X”	-n eraikitzen da	X eratzen du	gisa eratzen da
valor (superior)	balore	balio	balio
pluralismo político	<u>politik</u> aniztasun	aniztasun politiko	<u>pluralismo</u> politiko
forma política	<u>politik</u> era	eredu politiko	<u>forma</u> politiko
(trato) inhumano	(trato) <u>ezgizakor</u>	(trato) <u>jasaezin</u>	<u>gizatasunaren</u> <u>kontrako</u> (trato)
(trato) degradante	(trato) <u>itsusi</u>	(trato) apalesgarri	<u>duintasunaren</u> <u>kontrako</u> (trato)
peculiaridades	---	---	berezitasunak
ejercicio (de las profesiones tituladas)	<u>iharduera</u>	jarduera	jarduera
funcionamiento (de los Colegios)	iharduera	jardunbide	(demokratikoak izan) jokamoldez
españoles	<u>espainol</u>	espainiar	espainiar
vivienda	<u>bizitza</u>	etxebizitza	etxebizitza
(vivienda) adecuada	(bizitza) <u>egokizko</u>	(etxebizitza) egoki	(etxebizitza) egoki

suelo	lur	lur	<u>lurzoru</u>
utilización (del suelo)	(lurraren) <u>erabilpen</u>	(lurraren) erabilera	(lurzoruaren) erabilera
simultáneamente	<u>era berean</u>	aldi berean	aldi berean
vincular (a las Cámaras)	<u>lotarazi</u> (Ganbarak)	loteslea izan (ganberentzat)	(Ganberak) lotu
(ejercer) función	funtzio (erabili)	eginkizun (bete)	(bete) eginkizun

## TERMINOLOGIA

	1978	2004	2006
Estado social y democrático de Derecho	<u>Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko</u>	zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa	zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko
ordenamiento jurídico	<u>lege araugintza</u>	antolamendu juridiko	ordenamendu juridiko
soberanía nacional	Subiranotasun nazional	Nazioaren subiranotasun	Subiranotasun nazional
Estado español	<u>Estatu Espainol</u>	Espainiako estatu	Espainiako estatu
Monarquía parlamentaria	Monarkia <u>parlamentaria</u>	parlamentu-monarkia	monarkia parlamentarioa
abolir (quedar abolida)	<u>baztertua</u> geratu	indarrrik gabe geratu	ezeztatu
ley penal militar	<u>harmadako</u> zigor lege	zigor-lege militar	lege penal militar
régimen jurídico	lege <u>errejimen</u>	araubide	araubide juridiko
colegio profesional	<u>kolejio</u> profesional	lanbide-elkargo	profesionalen elkargo



profesión titulada	tituludun <u>profesio</u>	tituludun lanbide	lanbide tituludun
comunidad	erkidego	gizarte	erkidego
acta de una Asamblea de Comunidad Autónoma	Erkidego Autonomaren Biltzar <u>izendapen</u>	autonomia-erkidegoko biltzar-akta	autonomia-erkidego bateko legebiltzarkide-akta
Congreso	<u>Biltzar</u>	Kongresu	Kongresu
Cortes Generales	Gorte <u>Orokorra</u>	Gorte Nagusiak	Gorte Nagusiak
mandato imperativo	inoren agintze	manuzko agindu	aginduzko mandatu
parlamentario (iz.)	parlamentari (iz.)	Parlamentukide (iz.)	parlamentari (iz.)
convocatoria reglamentaria	arauzko deitze	arauzko deialdi	erregelamenduaren araberako deialdi

#### FRASEOLOGIA

	1978	2004	2006
se constituye en X	-n eraikitzen da	X eratzen du	X gisa eratzen da
(la soberanía) reside en X	-n datza	-n datza	-i dagokio
emanan (los poderes del estado)	darizkio (Estatuaren botereak)	sortzen dira (Estatuaren botereak)	datozkio (Estatuari botereak)
(tienen) derecho a la vida y a la integridad física y moral	bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea (dute)	bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea (dute)	(dute) bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea

(puedan) ser sometidos a tortura	(ezin dira) meneratu torturetara	(ezin da inoiz) torturarik egin	(inori ezin) pairaraziko zaio (...) torturarik
Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las leyes penales militares para tiempos de guerra.	Heriotza zigorra baztertua geratzen da, salbuespen bezala gerrateetarako Harmadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batetara utziz.	Heriotza-zigorra indarrrik gabe geratzen da, zigor-lege militarrek gerraldirako xeda dezaketenari kalterik egin gabe.	Ezeztatzen da heriotza-zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra-denborarako.
(para) hacer efectivo este derecho	eskubide hau egiaztatzeko	eskubide hori eragingarria izan dadin	eskubide hori gauzatzeko
regulando la utilización del suelo de acuerdo con el interés general	lurraren erabilpena arautuz interes orokorraren arabera	interes orokorraren arabera arautuko dute lurraren erabilera.	interes orokorrari begira arautuz lurzorua erabilera,
acumular (el acta de X, con la de Diputado)	gehitu X, Yrekin (gehitu Erkidego Autonomaren Biltzar izendapena Diputatuen Biltzarrekoarekin)	X izan Yrekin batera (autonomia-erkidegok o biltzar-akta izan Kongresuko diputatuarenarekin batera)	batera eduki X eta Y
(no podrán) ostentar sus privilegios.	(ezin dute) pribilejiorik eduki	(ezin dute) pribilejiorik izan	(ezin dira) pribilegioen jabe agertu.

## 6.1. 1978ko bertsoaren azterketaren ondorioak

1978ko bertsoa kokatzeko, hasierara itzuli behar gara eta gogoratu euskarazko testu juridikoak erabaki politiko batengatik egiten hasi zirela, hain zuzen ere, euskararen ofizialtasunaren ondorioz. Hortaz, pentsa dezakegu euskarak itzelezko bulkada jaso zuela, baina ez zen zehazki horrela izan. Irizpide linguistikoen falta zela eta, hobeto ulertzen ziren erdarazko testuak eta, horregatik, jendeak gaztelaniazko bertsoa irakurtzen zuen.

Horren arrazoia hainbat aldetatik datorkigu. Alde batetik, lexikoki, esan bezala, irizpide linguistikoen falta nabari da, finkatu gabe zegoelako (*valor / balore, pluralismo político / politik aniztasun, forma política / politik era*) eta ganorazko hiztegi bat falta zelako, zeinak ortografiaren finkapen falta ere zekarren atxikita; patxadazko hiztegirik gabe, zaila zen ortografia finkatzea (*ejercicio (de las profesiones tituladas) / iharduera, funcionamiento (de los Colegios) / iharduera*).

Beste alde batetik, terminologia ere nahiko eskasa zen, termino asko finkatu gabe zeudelako (*ordenamiento jurídico / lege araugintza, Monarquía parlamentaria / Monarkia parlamentaria, abolir (quedar abolida) / baztertua geratu, ley penal militar / harmadako zigor lege, Congreso / Biltzar, Cortes Generales / Gorte Orokorra, convocatoria reglamentaria / arauzko deitze*).

Fraseologiari dagokionez, maileguak eta kalkoak ikus ditzakegu, itzulpen literala egiten zelako (*se constituye en X / -n eraikitzen da, (puedan) ser sometidos a tortura / (ezin dira) meneratu torturetara, Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las leyes penales militares para tiempos de guerra / Heriotza zigorra baztertua geratzen da, salbuespen bezala gerrateetarako Harmadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batetara utziz, (para) hacer efectivo este derecho / eskubide hau egiaztatzeke, acumular (el acta de X, con la de Diputado) / gehitu X, Yrekin (gehitu Erkidego Autonomaren Biltzar izendapena Diputatuen Biltzarrekoarekin)*).

Nahiz eta maileguak eta kalkoak agertu, itzulpena zehatza eta ulergarria da, oro har, oso lotuta doalako jatorrizko gaztelaniazko sorburu testuarekin: azterketa egin dugun tauletan ikus dezakegunez, erraza egiten da jatorrizko bertsoa itzulpenarekin parekatu eta konparatzea. Hala ere, gaztelaniazko testuarekin hain lotuta egoteak zenbaitetan

ulergarritasunean laguntzen digun arren, euskal testuaren kalitatea koloka geratzen da batzuetan, berriz ere, erdarazko testua delako gidari.

## 6.2. 2004ko bertsioaren azterketaren ondorioak

2004ko bertsioa oso ezberdina da 1978koarekin alderatuta, euskararen corpusari dagokionez itzelezko jauzia gertatu zelako hasierako EKNAOren (1978-1980) eta berehalako EHAren artean (1980-1989), eta are jauzi handiagoa hurrengo hamarkadetan.

Terminoak itzultzailearen interesgune nagusia dira oraindik, baina haien esanahiaz jabetzeko ahalegin handiagoa dago eta maileguen erabilera saihesten da; hau da, euskarazko beste termino egokiagoak bilatzen saiatzen dira itzultzaileak.

Lexikoari dagokionez, ordurako Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren lehenbiziko bertsioa argitaratu zuen (2000. urtean), eta hiztegi horrek eragin handia izan du batasunaren bidean, zeina oso nabarmena den 2004ko bertsioaren lexikoan. Gainera, ortografikoki jada ez daude 1978an agertzen ziren akatsak (*ejercicio (de las profesiones tituladas) / iharduera / jarduera, funcionamiento (de los Colegios) / iharduera / jardunbide*).

Baditu ondo konpondu gabeko arazo bakan batzuk (*forma política / eredu politiko, inhumano / jasezin, suelo / lur*), baina ez dira eragozpena testuaren haria ondo jarraitzeko.

Terminologiari dagokionez, esan dezakegu antzeko zerbait gertatzen dela, asko hobetzen da 1978ko bertsiotik, nahiz eta zenbait proposamen eztabaidagarriak diren oraindik (*trato inhumano / tratu jasaezin, comunidad / gizarte, soberanía nacional / Nazioaren subiranotasun, Estado social y democrático de Derecho / Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko, acta de una Asamblea de Comunidad Autónoma / autonomia-erkidegoko biltzar-akta ...*).

Fraseologian ere badira aldaketa nabariak. Bertsio honetan itzulpenak ez dira hain literalki egiten eta esaldiak egokiak eta ulergarriak izan daitezten saiatu ziren (*se constituye en X / -n eraikitzen da □ X eratzen du, emanen (los poderes del estado) / darizkio (Estatuaren botereak) □ sortzen dira (Estatuaren botereak), (puedan) ser sometidos a tortura / (ezin dira) meneratu torturetara □ (ezin da inoiz) torturarik egin, Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las leyes penales*

*militares para tiempos de guerra / Heriotza zigorra baztertua geratzen da, salbuespen bezala gerrateetarako Harmadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batetara utziz* □ *Heriotza-zigorra indarrrik gabe geratzen da, zigor-lege militarrek gerraldirako xeda dezaketenari kalterik egin gabe, (para) hacer efectivo este derecho / eskubide hau egiaztatzeko* □ *eskubide hori eragingarria izan dadin, acumular (el acta de X, con la de Diputado) / gehitu X, Yrekin (gehitu Erkidego Autonomaren Biltzar izendapena Diputatuen Biltzarrekoarekin)* □ *X izan Yrekin batera (autonomia-erkidegoko biltzar-akta izan Kongresuko diputatuarenarekin batera).*

### **6.3. 2006ko bertsioaren azterketaren ondorioak**

Bertsio hau egiteko, ahalik eta itzulpenik literalena egiten saiatu ziren, hori eskatzen duelako horrelako testu batek, jatorrizkoak dioen huraxe eta ez besterik uler dezan irakurle eta erabiltzaileak. Hori lortzeko, ez da hitza hitzarekin ordaintzen saiatu; zentzuari leial izatea bilatu da. Horretaz aparte, urteotan euskaraz normalizatzeko bidean jarri diren hainbat hitz eta termino ageri dira itzulpen honetan.

Lexikoari dagokionez, puntualak dira 2004ko bertsioaren eta 2006ko bertsioaren arteko ezberdintasunak (*pluralismo político / (2004) aniztasun politiko / (2006) pluralismo politiko, forma política / (2004) eredu politiko / (2006) forma politiko, trato inhumano o degradante / (2004) tratu jasaezin edo apalesgarri / (2006) gizatasunaren edo duintasunaren kontrako tratu, funcionamiento / (2004) jardunbide / (2006) jokamolde, suelo / (2004) lur/ (2006) lurzoru, vincular / (2004) lotesle izan / (2006) lotu...*), eta ez dira funtsezkoak gehienetan. Kasu jakin batzuetan, itzulunguruetara jotzen da (*inhumano / (2004) jasaezin / (2006) gizatasunaren kontrako*) eta beldurrik gabe baliatzen da Hiztegi Batuan sarrera izan dutenen mailegutzaz, testuak ulergarriak izateko helburuarekin.

Terminologian, lexikoan azaldutakoa aplikatu daiteke. Beraz, esan dezakegu 2004ko bertsiotik ez dela asko ezberdintzen, baina badaudela hainbat hobekuntza (*Estado social y democrático de Derecho / zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa* □ *zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko, ordenamiento jurídico / antolamendu juridiko* □ *ordenamendu juridiko, soberanía nacional / Nazioaren subiranotasun* □ *Subiranotasun nazional, Monarquía parlamentaria / parlamentu-monarkia* □ *monarkia parlamentarioa, abolir (quedar abolida) / indarrrik gabe geratu* □ *ezeztatu, ley penal*

*militar/ zigor-lege militar* □ *lege penal militar, colegio profesional/ lanbide-elkargo* □ *profesionalen elkargo...*) eta baita ere jatorrizko maileguetara bueltatzen direnak (*comunidad/ erkidego (1978) / erkidego (2006), parlamentario (iz.) / parlamentari (iz.) (1978) / parlamentari (iz.) (2006)*).

Aztertutako artikuluetan, fraseologian gertatzen dira aldaketa gehienak 2004ko bertsioarekin konparatuz, esan bezala, zentzuari leial izatea bilatu delako eta ez hainbeste hitzak era literalean itzultzen (*se constituye en X / X eratzen du* □ *X gisa eratzen da, (la soberanía) reside en X / -n datza* □ *-i dagokio, emanen (los poderes del estado) / sortzen dira (Estatuaren botereak)* □ *datozkio (Estatuari botereak), (puedan) ser sometidos a tortura / (ezin da inoiz) torturarik egin* □ *(inori ezin) pairaraziko zaio (...)* *torturarik, Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las leyes penales militares para tiempos de guerra / Heriotza-zigorra indarrrik gabe geratzen da, zigor-lege militarrek gerraldirako xeda dezaketinari kalterik egin gabe* □ *Ezeztatzen da heriotza-zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra-denborarako, (para) hacer efectivo este derecho / eskubide hori eragingarria izan dadin* □ *eskubide hori gauzatzeko, acumular (el acta de X, con la de Diputado) / X izan Yrekin batera (autonomia-erkidegoko biltzar-akta izan Kongresuko diputatuarenarekin batera)* □ *batera eduki X eta Y, (no podrán) ostentar sus privilegios / (ezin dute) pribilejiorik izan* □ *(ezin dira) pribilegioen jabe agertu*).

#### **6.4. Azken ondorioak**

Arakatu dudan lagin mugatuaren azterketatik ondorio orokor hauek atera daitezke:

- Lexikoak itzelezko garapena izan du 1978ko bertsiotik 2004 eta 2006ko bertsioetara; 1978an oso eskasa baita. Egia esan, 2004 eta 2006ko bertsioak, lexikoari dagokionez, nahiko egokiak dira eta parekotasun handiak dituzte.
- Terminologiari dagokionez, lexikoarekin bat dator eta hemen ere 1978ko bertsiotik beste bi bertsioetara (2004 eta 2006ko bertsioak) itzelezko aurrerakada gertatu da.

Gaur egun Euskalterm bilakatu da guztien datu-base nagusia, baina jakin behar dugu ez diela gaurko behar guztiei erantzuna ematen eta oraindik ere baditugu guztiz konpondu gabeko arazo terminologiko batzuk.

- Fraseologian, garapena graduala izan da eta ezberdintasunak daude hiru bertsioen artean. 1978ko bertsioan, fraseologia ez dago batere landuta eta esaldiak era literalean itzultzen dira. 2004ko bertsioan, hori aldatzen saiatu ziren, baina esaldiaren egitura asko aldatu gabe. Aldiz, 2006ko bertsioan, fraseologian esaldien egitura aldatzea ez da oztopo bat, ulergarritasunaren bide, ahal den eta itzulpen zehatzena bilatu nahi delako.

Beraz, ondorio nagusietako bat hauxe da: aurrerapauso nabarmena gertatu zen hizkera argiaren bidetik Konstituzioaren lehen bertsioetik (1978) hurrengoetara (2004 eta 2006), epe historikoki oso laburrean euskararen corpusa, batetik, eta diskurtso juridikoa, bestetik, ikaragarri landu eta garatu zirelako. Esan dezakegu ezberdintasun nagusiak 1978ko bertsioaren eta 2004 eta 2006ko bertsioen artean gertatzen direla. Izan ere, 1978ko bertsioeko itzulpena nahiko eskasa da; 2004 eta 2006koak, berriz, nahiko landuak eta oso parekoak dira, eta ia ez da aldaketa nabarmenik gertatzen: ez lexikoan, ez terminologian. Fraseologian, hala ere, badira desberdintasun gehiago, eta horrek adierazten du beharbada diskurtsoaren eta sintaxiaren mailakoa izan litekeela 2006ko bertsioaren ekarpen handiena; hala ere, ikerketa zehatzago eta sakonagoak behar dira hipotesi hori egiaztatzeko eta lan honetan ateratako ondorio orokorrak baieztatzeko.

Amaitzeko, eta hausnarketa moduan, esan beharra dago gaur egun ere, nahiz eta lehen baino askoz ere gutxiago, zalantzetan murgilduta lan egin behar duela betiere euskal testu juridikoen ekoizle, itzultzaile nahiz sortzaileak. Izan ere, zuzenbideko hizkerak ez du konponbide zail eta korapilatsurik; nahikoa da bere erabilera zabaltzea eta ez egotea gaztelaniaren menpe. Euskal legelariak euskara zuzenbide hizkuntza gisa erabiltzen baldin badute, testuak ulergarriagoak izango dira eta ulergarriak izatearekin, segurtasun juridikoan ere irabaziko genuke, eta irakurleak euskarazko testuak irakurriko lituzke, ez litzatekeelako beharrezkoa izango jatorrizko erdarazko testuetara jotzea.

Horretaz aparte, ezinbestekoa da Zuzenbidearen hizkera irakasgai akademiko izatea eta hizkera juridikoaren inguruko ikerlerroak oso garatuta izatea. Izan ere, lan-tresna hizkuntza duten lanbideetan, zuzenbidea dela kasu, ez da nahikoa Euskaltzaindiaren arauak ezagutzea; datu-base berezituak erabiltzen eta hornitzen trebe izan behar du legelariak, eta hori guztia egiten duen bitartean, etengabeko harreman-sareak landu

beharko ditu mundu juridiko euskalduneko beste eragile eta kideekin hizkeraren batasuna hobetze aldera.



## 7. Bibliografia

### **Konstituzioaren bertsioen erreferentziak**

*Constitución Española*. Boletín Oficial del Estado, 29 de diciembre de 1978, núm. 311

*ESPAINIAKO KONSTITUZIOA*. (1978). boe.es.

Sarean eskuragarri:

<https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf>

Euskaltzaindia, Deustuko Unibertsitatea (2004). *Espainiako Konstituzioa*. Constitución Española. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Sarean eskuragarri:

<http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/minordcho/minordcho01.pdf>

Ezeizabarrena, J. I. U., Garagarza, M. Z., & Alzuguren, P. P. (2006). *Constitución española*. Universidad del País Vasco.

Sarean eskuragarri:

<https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=ULPDF068511#>

### **Liburuak, artikuluak, GRAL-ak, tesiak etab.**

Alkorta Idiakez, Itziar (2004). “Andres Urrutia Badiola. Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko irakaslea, notarioa eta Euskaltzainburua.” *Eleria: Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria* (13). pp. 91-96. ISSN 1137-1951

Alzuguren Michelena, Ainhoa (2018). *Hizkera juridiko argiaren bidetik Ulertzeko Eskubidea jomugan*. (Gradu Amaierako Lana). UPV/EHU, Leioa, Bizkaia.

Sarean eskuragarri:

<https://addi.ehu.eus/bitstream/handle/10810/30784/ALZUGUREN%20MICHELENA%2c%20AINHOA.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Comisión para la Modernización del Lenguaje Jurídico (2010). *Informe general*. Madril: Justizia Ministerioa.

Sarean eskuragarri:

<https://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2015/10/CMLJ-Lenguaje-escrito.pdf>

Comisión para la Modernización del Lenguaje Jurídico (2011). *Estudio de campo: Lenguaje Escrito*. Madril: Justizia Ministerioa.

Sarean eskuragarri:

[https://www.academia.edu/1100499/Estudio\\_de\\_campo\\_Lenguaje\\_escrito.\\_Comisi%C3%B3n\\_para\\_la\\_modernizaci%C3%B3n\\_del\\_lenguaje\\_jur%C3%ADdico](https://www.academia.edu/1100499/Estudio_de_campo_Lenguaje_escrito._Comisi%C3%B3n_para_la_modernizaci%C3%B3n_del_lenguaje_jur%C3%ADdico)

Elosegi Aldasoro, Antton (2004). “Euskara juridikoak 25 urte betetzen dituenean. Gogoeta batzuk euskara juridikoaren garabidearen gainean”. *Eleria*. 12, 2004, 71-85

Elosegi Aldasoro, Antton (2002). *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologikoa*. (Doktoretza tesia). UPV/EHU, Leioa, Bizkaia.

Sarean eskuragarri:

[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Antton\\_Elosegi\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Antton_Elosegi_TESIA.pdf)

IVAPeko Administrazio Hizkera Atala (2017). *20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos*. Gasteiz: HAEE.

Sarean eskuragarri:

[https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/es\\_def/adjuntos/Mejorar\\_textos\\_juridicos/20\\_consejos.pdf](https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/es_def/adjuntos/Mejorar_textos_juridicos/20_consejos.pdf)

Oficina de Publicaciones de la Unión Europea. (2011). *Cómo escribir con claridad*. Luxemburgo.

Sarean eskuragarri:

[http://publications.europa.eu/resource/ellar/725b7eb0-d92e-11e5-8fea-01aa75ed71a1.0007.03/DOC\\_1](http://publications.europa.eu/resource/ellar/725b7eb0-d92e-11e5-8fea-01aa75ed71a1.0007.03/DOC_1)

Eusko Jaurlaritza (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila) (2008). *Posicionamiento Integral para la Modernización y Euskaldunización de la Administración de Justicia en el País Vasco*.

Sarean eskuragarri:

[https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Dplan-054-posicionamiento\\_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510361646&ssbinary=true&miVar=1622015278837](https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Dplan-054-posicionamiento_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510361646&ssbinary=true&miVar=1622015278837)

GARZIA GARMENDIA, J. (2007): "Etxea oinarritik hasi beharra: hizkera juridikoa ere euskara da", in M.J.A. Sagarna: *Hizkuntza komunikazioaren eta teknologiaren garaiak*. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, pp.75-83.

### **Webguneak:**

Administrazio hizkera argia bloga. URL:

<http://www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia/>

Administrazioa Euskaraz aldizkaria. URL:

<https://www.euskadi.eus/r61-appadmeu/eu/t59auUdaWar/R1?locale=eu>

Clarity. URL: <http://www.clarity-international.net/>

IVAPeko estilo-liburua. URL:

[https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/adjuntos/estilo\\_liburua.pdf](https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf)

Lectura Fácil Euskadi – Irakurketa Erraza. URL: <http://lecturafacileuskadi.net/>

Legal Design Lab. URL: <http://www.legaltechdesign.com/>

Plain Language Association International. URL: <http://plainlanguagenetwork.org/>

### **Hiztegiak:**

Elhuyar Hiztegia. URL:

<https://www.euskadi.eus/web01-apelhuya/eu/ab34aElhuyarHiztegiaWar/ab34ahiztegia/bilatu#>

Euskaltzaindiaren Hiztegia. URL:

[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_hiztegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu)

Mitxelena, Koldo (1987-2005). Orotariko Euskal Hiztegia (OEH).URL:

[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu)